

# Beti da Milaurteurrena (I)

JUAN GARZIA

## Munduaren Amaierako Artista




Badut nik lagun bat, nigandik hamar metrotara egonik ere, munduaren akaberari buruzko ezer inoren aurrean aipatzen badut, azkar asko atzeman eta nola edo hala aurpegiratzen didana. Askotan zeharkako begirada zorrotz (ala burlazko?) batekin konformatzen da, edo zuzen-zuzeneko so espantu-itxurako batekin. Lehengoan, ordea, hitzez adierazi zidan, bildutako lagunartearen erdian, zerk zeukan minberaturik eta zer zuen esateko nire esanbeharren aurrean: Kontu zaharrak omen dira; milenarismoa eta abar.

Sarritan gertatzen denez, gauza desberdinez ari ginen biok, berehala agertu zenez, nireaz baino areago Ernesto Sábato egin berriak zituen adierazpenez ihardun baitzuen, idazle argentinarrari ezin, eta niri leporatuz zifren inguruan ziklikoki sortu ohi

gainditu ezezik, ordurako munduaren akaberaz ez batere kezkatzeko modu eta trenpuan egongo gara noski bai Sábado -dudarik gabe-, bai ni, eta are nire adiskide protestagilea bera ere -seguruenik-.

Hitzén gain eta azpiko ulerbidetik atera nuenez, nire lagunak iradoki nahi zuena zera zen: Sábado xaharra (eta akaso ni neu ere) irrikaz zegoela mundua amai zedin. Egokiera hartan, momentuko berotasunak hartaturik, argentinarraren arrazoi ez batere milenario-folklorikoen defentsara errenditu nintzenez, ZEHARek eskaini didan leku hau aprobetxatu nahi dut neure jarrera argiagotzeko (aurren aurrenik -horixe da zailena, ordea-, neure buruari).

Nire ustean, mundua ez dago amaitzeko arriskuan (akabatu, jendea akaba liteke). Ez bi milagarren urtemugan (nondik kontatzen hasi, eta beti da edozein



den katastrofismoa eta adinaren kariazko txotxoleria.

Nik, egia esan, *El túnel*en egile miretsiari, munduaren paraderoari buruzko bere fatalismoan bainoago, gazteenganako aitortu zuen baikorkeria funtsgabearen antzeman uste izan nion txotxolo puntua. Gainerakoan, ez dut ikusten zertan den haren milenarismoa: alde batetik, argentinarraren arabera, etorri, ez datorke ez antikristo eta guztiko mileniorik ez besterik, mundura bide da joan doana (pikotara, hain zuzen); bestetik, munduari ematen dion bizi-itxaropenarekin (berrogei urtel), bi milagarren urtearen muga magikoa aisa,

urtemuga), ez hemendik berrogei urtera (tuñtea eta musa nahasten direla dirudi hordago hori kantatzerakoan). Gure mundua -hona abiapuntuko hipotesia- aspalditxo bukatu zen.

Izartegian betetzen dugun lekuari dagokionez, aspaldi ikasi behar genuen apal eta behin-behineko sentitzen, apal eta behin-behineko *izaten* ikasi beharrik ez baitauka bigarren mailako izar baten inguruko orbitakin bitxi bateko izaki (mila mendeetan neurturik) ezteusak. Gure mundua has zedin motibo agerikorik ez zegoenez, zergatik eskatu orain inolako arrazoi kosmiko-dramatikorik buka dadin?




Eta bestetik, zein da «gure» deitzera ausartzen garen «mundu» hori. Beste mundu batzuk daudela onartu dugunetik, mundua eta unibertsoa bi kontzeptu desberdin dira, eta inor gutxi ausartzen da ideia metafisikotik haragako ezer esaten orokorren horretaz. «Gure mundua», beraz. Pertsona gramatikaren erretorikak salatzen duen antropomorfismo erosoaren kritika merkerik egin gabe ere, zein da «gure» horrek zehaztu nahi lukeen erreferentzia? Lurra, planeta bat? Zehazkiago, (normalean) Lur horren azalean bizi (eta mineralak?) diren izakiak? Denak? Ala gizakiak eta haien (gure) eusgarri eta lagungarri diren bestekiak bakarrik? Eta gizakiak ere... guztiak?... osorik?

Ez dago garbi zeri esaten diogun «mundu»; edo, hobeki esan, aisa onar liteke, errepresentazio (eta nahi) bati ematen zaion izena *izanik* mundua, «gure» itxuraz erretorikak behartu horrek zehazten duela, zer dagoen ez baina, nor dagoen irudikazio horren atzetik (?!): errepresentazioari izena ematen diona bera, hain zuzen, irudikatzearen eta esatearen sujetu aldiberekoa: *gu*.

Gramatikak berez ez duen kategoria batez adierazteko, ordea, sujetu hori izenordain gatazkatsua da. Aniztasun-markarik gabeko plurala da, bere singularrari *-ni* ospetsuari- bezalako konplexutasun

Grezia, dinosauruak, neolitikoa, Matxupitxu... Denboraz dugun pertzepzioak gure aurretik gertatu direla adierazten digulako, geure historian, geure munduan integratzen ditugu, gure aurre-izatea bailiran, gure arbaso-leinuak. Zibilizazioa bat baita guretzat, eta errazago moldatzen baita horretara iragan isileko ondare entziklopediko hori (ez ahaztu, hala ere, ziklope gureek begi bakarra zutela, bere handian...), oraintxe bertan gure mundutik aparte bizi den milioika jenderen *kulturak* baino (Ohartzekoa da pluralak «kultura» hitzari eragiten dion esanahi-galtzea. Ildo beretik, «etniak» inorenak dira beti; «musika etnikoa», adibidez, etnia (?) *bitxi* batek egiten eta etnia berezi batekoa ez bide den batek saltzen duena da).

Ez gaitezen despista, ordea, akabuan dagoen zibilizazioaren ohizko beste ihesbidearekin: exotismoa. Norberaren izateak norarik ez duenean, inoren ibiliei (edo kalapitei) begira jar gaitezke: norbait ibili dabil, eta ni ere norbait naiz, harekiko desberdintasunak nortasun itxura eman baitit berriro. Eta nor naizen?: hain zuzen ere -dekadentziak ez baitu galeratzen harrotasuna-, haren ihardunari zentzua emateko dagoena. Pentsamentuak bizitzak baino luzaroago iraun lezake gugan, beraz, Mundu Gerran erabat suntsituriko fabrikatzar batzuen bulegoek urteetan iraun zuten moduan.



sikologikorik aitortzen ez zaiona. Nola liteke, haatik, hainbat *ni* konplexuz osaturiko *gu* hori ez izatea osaketaren araberako konplexua? Ala bada? Ala, itxuraren kontra, ez da *niz* osatua? Zer da orduan *gu*?... Gramatika bera ere koloñan jartzeraino adartzen zaizkigu galderak.

Hona bigarren hipotesia: gurea bezala itzuli zoroan hasten den gurpilari aldatzeko tenorea iritsi zaio (eta aldagairik ez badago, kito). Ez da kasualitate hutsa ziklo historikoez hitzegitea. Ziklo bakoitza, hain zuzen, haste eta amaitzea da, mundu baten sorrera eta akabua.

Halako exotismorik gabeko begira egote huts bat ere bada, ordea: gure kulturaren eraikinak inguruan gainbehera etorri eta porrokatzen ikustearen melankoniara ematera deliberatu edo etorri den artistarena, alegia (artista hitza lehenbizikoz ezarri dudana honetan ere ez da derrigor ulertu behar obra eta guztiko artegileaz ari naizenik). Eta hori, ez -askotan- berez hartarako joera lukeelako, berpizkunde minimalik ere fingitzeko gauza ez delako baizik: arrazoiak oro beren onen eta txarrenak emanak dautza jadanik; transzendentziak haur sinesberen ameskeria ziren, etajolasak, berriz, eskisitoen bihozkabekeria luxuzkoak; bide guztiak ibiliak dira, eta berribiliak ere ez gutxi.

Gauzak zer diren: atzera begiratze horrek berak eman liezaioke halakoari -bertan gatz-estatua bihurturik gelditzeko arriskuarekin batera- bere buru eta garai nahasiotarako sosegagai aukerakoa. Eman dezagun literaturgile bat dela artista, bere munduaren akaberako zarata artean arrunkeriak jo gabeko hitz bat ere aurkitu ezinik dabilena. Iraganminez jo dezake gero eta testu zaharragoak irakurtzera, antzianago gauzak eta hitzak eta irudiak garbiago zeudelako ustekeriaz. Bere aurreragoko kideek, ordea, ez dirudite prest laguntzeko. Eman dezagun berrehun urte lehenago, gure mundua (Ilustrazioarena) hastear, Lichtenberg-ek argitaratzeko asmorik gabe idatzitako ohar-aforismoetara jo duela, metaliteraturaz eta intertestualitatez eta mintzagarrien mugatik harandiko isiltasunaz mintzatu beharrez ok eginda, ur fresko bila, eta hara zertzuekin topo egin duen lehenbizikotik:

Oraingo modaren arabera, idaztea da guztizkorik guztizkoena, eta gainerakoa, berriz, hutsaren hurrengoa. Ederra gaia satira baterako.




Zizeronen argitaraldi schreveliarrean (Basilea, 1687), S letraren apaindurak, zeinarekin hasten baita *De inventione rhetorica* liburukia, jeinu bat ageri da bere beharrak egiten.

horiétakoa. Ingelesez ere bai baitaki, zer hobea Sterne jostaria baino, aurreko testutik denboran ia batera urrundu gabe, gainera? Honela mintzo zaio Tristram Shandy:

... thus it is, by slow steps of casual increase, that our knowledge physical, metaphysical, physiological, polemical, nautical, mathematical, aenigmatical, technical, biographical, romantical, chemical, and obstetrical, with fifty other branches of it, (most of 'em ending, as these do, in *ical*) have, for these two last centuries and more, gradually been creeping upwards towards that *Acme* of their perfections, from which [...] we cannot possibly be far off.

When that happens, it is to be hoped, it will put an end to all kind of writings whatsoever; -the want of all kind of writing will put an end to all kind of reading;- and that in time, *As war begets poverty, poverty peace*, -must, in course, put an end to all kind of knowledge,-and then-we shall have all to begin again; or, in other words, be exactly where we started.

Oroz gain, «joan deneko bi mende honetan» horrek gogaitu du, Sternek oraingo irakurketa hau kalkulatu balu bezalako efektu ironikoa baitu, oraintsu bete baitira beste bi mende idatzi zuenetik. Bi mendetako



Benetako logika onak, dio D'Alembert-ek, haiek gabe pasa daitezkeenentzat soilik dira probetxagarri. Perspektibak ez ditu gaitzen itsuak ezer ikusteko.

Esan didatenez, liburu baten iruzkina egiten ari denean izaten ditu beti erezikiorik bortitzenak.

Kontzientzia txarrez konturatzen da gustora ari dela gaurko autore batenak balira probokatzaile edo pedantetzat joko lituzkeen aletxo generorik gabeok irakurtzen, eta bere baitan egiten du ez ote lukeen hobe, halako hibridoak utzirik, generoen generora pasatzea... Bai, nobela bat behar du, zerbait adierazi behar eta narratzearen plazer besterik gabeztaiuturiko

barne zikloak ote daude, beraz, gure zientzia, arte, literaturaren ziklo historiko bakoitzean? Apokalipsigenesi etengabea ote da historiaren dialektika, edo artistek hartaz izan duten pertzepzioa, bederen? Atzerago jo beharko du.

El autor de este trabajo hace una reflexión estético-filosófica sobre el arte y el concepto de "fin del mundo", partiendo de la idea de milenarismo. Revisa también los conceptos de "ciclo histórico" y de "dialéctica de la historia" como un continuo génesis-apocalipsis.